



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 27a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko. Landa Garpenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (18. or.).

—Adierazpen instituzionala, Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du autodeterminazio-erreferenduma dela Mendebaldeko Saharako gatazkaren irtenbidea. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Gizarte Bazterketaren aurkako II. Planari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).

—Galdera, Errepideei buruzko II. Planeko 147. eta 148. jarduketak ez betetzeko arrazoiei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (20. or.).

—Galdera, jakiteko zer egin den gazteen ugalketa- eta sexu-osasuna sustatzearen arloan, María Chivite Navascués andreak egina (21. or.).

—Galdera, Calahorrako Ospitalean Nafarroako gaixoen kontsultak bertan behera uzteari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (21. or.).

—Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia ez betetzeari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (22. or.).

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko duen ETB1 eta ETB2 ikusi nahi duten nafarrek aukera hori izan dezaten itzalketa analogikoa gertatu ondotik, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (23. or.).

- Galdera, Calahorrako Ospitaletik Lizarrako García Orcoyen Ospitalera dermatologiako, oftalmologiako eta otorrinolaringologiako gaixoak bidali ondotik hartutako neurriei buruzkoa, Asun Fernández de Garai-alde y Lazkano andreak egina (23. or.).
- Galdera, Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartze-lonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin, Ana Figueras Castellano andreak egina (24. or.).
- Galdera, Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren eta Batzordeen Bilkura Egunkariaren grabazio, transkripzio, argitalpen, publizitate eta banaketari buruzko erabakia (27. or.).
- Jesus Pajares Azpiroz jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (27. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (28. or.).
- Jesús Esparza Iriarte foru parlamentari jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (28. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2009ko azaroaren 4ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ARTIKULUARI URKEZTURIKO ZUZENKEETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko bat idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados automobilak, telebistak, ordenagailuak, etxetresna elektrikoak eta abar erosteko emandako diru-laguntzak eta laguntza publikoak salbuetsitako errenta deklaratzearekin. Salbuespen fiskal horrekin tratatu fiskal pribilegiatua ematen ari zaie onuradun horiei beste diru-laguntza edo laguntza publiko batzuen onuradunekin alderatuta.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari bi bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa,

zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bateginako 55. artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. “ Bi bis.

“55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra.

3. Gutxieneko pertsonalagatik, subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 euro urteko.

4. Alderdi politikoentzako kuotengatik eta ekarpenengatik murrizketa.

Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako afiliazio-kuotak eta ekarpenak, urteko 600 euro bitarte, betiere kuota eta ekarpen horiek Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera kreditatuta egonez gero.

5. Artikulu honetan aipatzen diren murriztapenak hurrengo erregelaren arabera egiten dira:

Lehena. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak, bai eta hamahirugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

Bigarrena. Eraitza positiboa bada, 3. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa bada, 3. eta 4. idatz-zatietaoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan”».

Zioak: Lege bereko 62. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat etorritik, zerga oinarriko familia kenkariak kendu eta 62. artikulura eraman ditugu, tributu-kuotako kenkari bihurtuta.

3. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari bi ter idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 57. artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen—. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Bi ter.

“57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia.

Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikuluan 5. idatz-zatiko 2. aruan aipatuta-

ko murriztapena aplikatuko zaio, hala egokitzen bada”».

Zioak: Lege honetako 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

4. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

1. artikuluari bost idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

59.1 artikuluan testuaren ordez honako hau proposatzen da:

Hemezortzi. 59.1 artikulua.

1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino	Kuota osoa	Likidazio-oinarria, zenbateraino	Aplikatzekoa den tasa
		3.672 €	% 13
3.672 €	477,36 €	4-488 €	% 22
8.160 €	1.464,72 €	8.670 €	% 25
16.830 €	3.632,22 €	12.750 €	% 28
29.580 €	7.202,22 €	14.790 €	% 36
44.370 €	12.526,62 €	16.630 €	% 42
60.000 €	19.211,00 €	Gainerakoak	% 49”

Zioak: PFEZaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena areagotzearen aldekoak gara.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari bi quater idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez

aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 59.1 artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Bi quáter.

“59. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren karga-tasa.

1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Likidazio-oinarria zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.765	13
3.765	489,45	4.600	22
8.365	1.501,45	8.885	25
17.250	3.722,70	13.070	28
30.320	7.382,30	15.160	36
45.480	12.830,90	17.334	42
62.814	20.111,18	Gainerakoa	44

Zioak: Gure ustez errenta handienentzako % 44ko gehieneko tasa berreskuratu beharra dago.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1. artikuluko hiru idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Bi. 60. artikulua. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga.

Likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
6.000 euro bitarte	% 19
Likidazio-oinarriaren hondarra, 6000,01etik gora	% 21

Zioak: Kapitaleko errentei oso tratamendu fiskal aldekoa ematen zaie, laneko errentekin alderatuta. Laneko errentek tasa progresibo bat duten bitartean, % 42ko gehieneko tasaraino, kapitalekoei % 18ko tasa bakarria aplikatzen zaie.

Orain, lurralde komunean % 19tik % 21era doan eskala bat onetsi da.

Nafarroan Estatuko eskala baino txikiagoa den bati eutsi nahi izatea onartezina da, ekitatearen eta progresibotasun fiskalaren printzipioen ikuspuntutik.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluko hiru bis idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Haren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 60. artikulua –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–.

«Hiru. 60. artikulua. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga.

Likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
6.000 euro bitarte	18
Likidazio-oinarriaren hondarra, 6.000,01 eurotik gora	21”

Zioak: Zuzenketaren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 60. artikulua aldatu nahi da –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. 60. artikulua likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa zehazten du. 6.000 eurora bitarte, karga-tasa bera dago, 100eko 18koa. Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezian sartu beharreko etekinek 6.000 eurotik gora egiten badute, karga-tasa 100eko 20tik 100eko 21era igotzen da.

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari laugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 62.1 artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Lau.

“62. artikulua. Kuota-kenkariak.

1. Ohiko etxebizitzarengatiko kenkaria.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharbertzeagatik egindako kenkariei dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 120.000 euroko zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zerga-aldien batura aintzat hartuz”»

Zioak: Etxebizitzen egungo prezioa ikusita, 90.150 euroko kopurua txiekiegia da.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari bosgarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez bigarren lerrokada bat gehitzen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 62.1 f) b') artikuluari –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Bost.

“62. artikulua. Kuota-kenkariak.

1. Ohiko etxebizitzarengatiko kenkaria.

f) b'). Lerrokada berria.

Kasu honetan, ez da egonen kenkarirako gehieneko oinarriko muga, urteko 9.015 eurokoa”».

Zioak: Obrak egiten badira ezgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko, gure ustez ez dago zertan 9.015 euroko muga jarri. Normalean, obrek askoz ere diru gehiago kostatzen dute, eta gainerakoarengatiko kenkaria aplikatzeko aukera galtzen da.

10. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari seigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 62.2 artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Sei.

“62. artikulua. Kuota-kenkariak.

2. Etxebizitza-errentamenduaren ondoriozko kenkaria.

Zergaldian zehar ohiko etxebizitza errentan hartuta izateagatik ordainketak egin behar izan dituzten zergadunek, honako bi kenkari hauek aplikatu ahal izanen dute:

a) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 20, eta, betiere, 1.200,00 euro urtean, gehiezez.

b) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 25, eta, betiere, 1.500,00 euro urtean, gehiezez, baldin eta zergadunak familia ugarien titularrak badira.

Kenkariak egiteko, hurrengo baldintzak bete behar dira:

a) Subjektu pasiboak ez izatea zergaldian 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.

b) Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboak zergaldian eskuratutako errenten ehuneko 10 baino gehiagokoak izatea, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe”».

Zioak: Errentamendurako pizgarri fiskalak onuragarria izan behar du, halaber, errentariarentzat, hartara pizgarria 25.2 artikuluan jabearentzat orain dela bi urte ezarritako onurarekin orekatuko da. Orobat uste dugu igo behar dela familia ugarienezko kenkaria.

11. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari zazpigarren idatz-zatia gehitzeko

zuzenketa, zeinaren bidez 10. idatz-zatia gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 62. artikuluari –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Zazpi.

“62. artikulua. Kuota-kenkariak.

10. Familia- edo bizikidetasun-unitateengatikoko kenkari pertsonalak.

1. Subjektu pasiboaren kenkariak:

a) 252 euro hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 560 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 700 euro subjektu pasibo ezinduendako, egiaztatzen badute minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.520 eurokoa izanen da subjektu pasiboak egiaztatzen badu minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa duela.

2. Aurreko eta ondorengo ahaideengatikoko kenkariak:

a) Subjektu pasiboarekin bizi den eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldata baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, kopuru hauetako bat:

– 252 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 560 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errentak gutxieneko soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi bada eta urteko lanbide arteko gutxieneko soldatetik goragoko urteko errentarik, salbuetsiak bazter utzirik, jasotzen ez badu:

– 462 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 490 euro urtean, bigarrenagatik.

– 700 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 938 euro urtean, laugarrenagatik.

– 1.064 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 1.232 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 616 euro urtean. Zenbateko hori 1.120 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.”

c) Ondorengo ahaide ezkongabe, aurreko ahaide bakoitzeko edo laugarren gradura bitarteko –hori ere barne– alboko ahaide bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik subjektu pasiboarekin bizi bada, betiere haren urteko errentak, salbuetsiak kenduta, ez badira, kasuan kasuko zergaldian, urteko lanbide arteko oinarrizko soldata baino handiagoak, eta ezgaituak badira (minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela frogatuta), arestiko letretan xedatutakoari jarraituz bidezko diren zenbatekoek gain: 616 euro urteko. Zenbateko hori 2.156 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten kide badira, arestiko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga gutxieneko soldata horren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeorde-tze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

d) Subjektu pasiboak 616 euro murrizten ahal ditu pertsona lagundutzat jota dagoen ahaide bakoitzeko, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Murriztapena pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak baliatuko du, edo, horrelakorik ez badu, gradu hurbileneko ahaideak.

Murriztapen hori ezin izanen da baliatu baldin eta lagundutako pertsonaren ahaideren batek pertsona horrengatik idatz-zati honetako c) letran eza-

rritako gutxieneko familiarraren murriztapena baliatzen badu.

Pertsona lagundua dela justifikatu egin behar da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ekitaldi bakoitzean emandako ziurtagiriaren bidez.

3. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute artikuluko honetako aurreko idatz-zatiko aurreko eta ondorengo ahaideengatikoen kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

Dena den, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengo ahaidearekin edo lagundutako pertsonarekin, gertueneko mailako ahaideak soilik izanen du aurreko edo ondorengo ahaideengatikoen kenkariak aplikatzeko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu urteko lanbidearteko oinarriko soldatik gorako errentarik, salbuetsiak bazter utzita, kenkaria hurrengo mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

4. Ondorengoak, aurrekoak eta pertsona ezgaituak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako zenbatekoak Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioengatik familiaren etxean aritzen diren pertsonekin sinaturiko kontratuen ondorioz. Langile horiek hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak zainduko dituzte, bai eta subjektu pasiboari artikuluko honetako 10.2 idatz-zatiaren a), c) eta d) letretako gutxiengo familiarraren aplikaziorako eskubidea ematen dioten pertsonak ere.

Murriztapen hori aplikatzen ahalko da, orobat, subjektu pasiboa bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen badu bere minusbaliotasun maila % 65ekoa edo gehiagokoa dela.

Zioak: Kenkariak kuotan aplikatzearen sistemari bidezkoago deritzogu kenkariak oinarrian aplikatzearen gaur egungo sistemari baino, antolamendu horrek amaieran duen eraginak ez duelako loturarik zergadunaren errenta-mailarekin. Kenkaria oinarriari aplikatzeko sisteman mesede egiten zaie errentarik altuenei.

Bestalde, kenkari guztietan, ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (IPREM) erreferentzia gisa aipatzen den errenta-muga guztietan, lanbide arteko gutxieneko soldata (SMI) jartzea nahi dugu.

Halaber, ezgaitasuna duten pertsonekin bizi-zeagatikoen kenkaria zabaltzen dugu laugarren mailako alboko ahaideetaraino (lehengusuak)».

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1. artikuluko lau idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Hiru. 62.5.1. artikulua. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro.

b) 9.100,01 eta 10.600 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 9.100 euro eta, horren emaitza, bider 0,1.

c) 10.600,01 eta 30.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.140 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 10.600 euro eta, horren emaitza, bider 0,02268.

d) 30.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro”

Zioak: Ez areagotzea urteko 30.000 euro garbitik beherako laneko errenten gaineko presio fiskala. Gobernuaren proposamenak errenta ertainak dituzten 200.000 langile ingururen presio fiskala handituko du.

13. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari zortzigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 68. artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Zortzi.

“68. artikulua. Lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak diren pentsioengatikoen kenkariak”».

Zioak: 68. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-kin koherenteak izatearren.

14. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari bederatzigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 4. idatz-zatia gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 68. artikuluari –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Bederatzi.

“68.4. artikulua

Gizarte Segurantzatik zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioa eta beste pentsio batzuk batera jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatetsi beharreko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboak lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako beste errentarik jasoak ez izatea zergaldian, 50. artikuluko osagarriak jasotzeko eskubidea zehazteko aintzat hartzen diren pentsioez gainera, salbuetsita dauden errentak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatzen ahalko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkariarik eginen. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria egiteko prozedura, bai eta alde aurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Zahartzaroko edo elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioa edo aintzat hartzen den beste pentsioen bat zergaldi osoan jaso ez bada, artikulua honetako 1. idatz-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraituko zaio”».

Zioak: Gizarte Segurantzaren araubide berezi horietako pentsiodunak baztertu egiten dira, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako zenbatekoak jasotzen badituzte. Gainera, une hauetan, Nafarroako Foru Ogasunaren elkartasuna behar dute.

15. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari hamargarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 5. idatz-zatia gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 68. artikuluari –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Hamar.

“68.5. artikulua

Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak eta beste pentsio batzuk jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatetsi beharreko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboak lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako beste errentarik jasoak ez izatea zergaldian, 50. artikuluko osagarriak jasotzeko eskubidea zehazteko aintzat hartzen diren pentsioez gainera, salbuetsita dauden errentak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatzen ahalko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkariarik eginen. Erregelamendu bidez arautuko da ken-

karia egiteko prozedura, bai eta alde zuzeneko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen bereziko erretiro edo ezgaitasun pentsioa nahiz harekin batera jasotzen diren bestelako pentsioak ez badira zergaldi osoan jaso, artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren lerroan ezarritakoari jarraituko zaio.

Zioak: Gizarte Segurantzaren araubide berezi horietako pentsiodunak baztertu egiten dira, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako zenbatekoak jasotzen badituzte. Gainera, une hauetan, Nafarroako Foru Ogasunaren elkartasuna behar dute.

16. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari hamaikagarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 6. idatz-zatia gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 68. artikuluari –testu batekin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

“Idatz-zati berria. Hamaika.

68.6. artikulua.

Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak eta beste pentsio batzuk jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu batekin onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatesi beharrezko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboak lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako beste errentarik jasoak ez

izatea zergaldian, 50. artikuluko osagarriak jasotzeko eskubidea zehazteko aintzat hartzen diren pentsioez gainera, salbuetsita dauden errentak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatzen ahalko zaio kenkari hori alde zuzeneko ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkari egiten. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria egiteko prozedura, bai eta alde zuzeneko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen bereziko erretiro edo ezgaitasun pentsioa nahiz harekin batera jasotzen diren bestelako pentsioak ez badira zergaldi osoan jaso, artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren lerroan ezarritakoari jarraituko zaio.

Zioak: Gizarte Segurantzaren araubide berezi horietako pentsiodunak baztertu egiten dira, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako zenbatekoak jasotzen badituzte. Gainera, une hauetan, Nafarroako Foru Ogasunaren elkartasuna behar dute.

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari hamabigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 75,28. artikulua – testu batekin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Hamabi.

“75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

2._ 62. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran ezarritzen den oinarrien guttizko zenbatekoa 270.000 eurokoa izanen da familia unitate osorako”».

Zioak: 62.1 c) artikulurako proposatu den aldaketarengatik. Izan ere, hartan, ohiko etxebizitzarengatik kenkariaren muga aldatzen dugu subjektu pasiboaren zerga-aldien batura aintzat hartuz; izan ere, 90.150 eurokoa izatetik 120.000 eurokoa izatera pasatzen da.

18. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari hamahirugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 75.6. artikulua – testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Hamahiru.

“75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

6. 71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikuluko 5. idatz-zatiko 28. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3. eta 4. idatz-zatietan aipatzen diren murrizketak, gerakina beste ezkontidearen edo bikote iraunkorreko kidearen gutxieneko pertsonalari eta familiarri erantsiko zaio”».

Zioak: 55. eta 62. artikuluetan eginiko aldaketak direla eta.

19. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 1. artikuluari hamalaugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategineko 77.6. artikulua –testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–. Hona testu berria:

«Idatz-zati berria. Hamalau.

“77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

6. 62. artikuluko 10. idatz-zatian aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion familia kenkariak gutxitu egingen dira zergaldia osatzen duten urte naturaleko egunen kopuruaren arabera, proportzionalki, baterako zerga-ordainketaren kasuan izan ezik; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera eginiko kenkariaren zenbatekoak gutxitu egingen du kon-

tzepitu berberengatik beste subjektu pasibo batzuek egiten ahal dituzten kenkariaren zenbatekoa”».

Zioak: 55. eta 62. artikuluetan eginiko aldaketak direla eta.

2. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKEETAK**20. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA**
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko 2. artikuluari hiru bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa; haren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 36.1 artikuluko lehen lerrokada aldatzen da. Hona testua:

«Hiru bis. 36.1. artikuluko 1. lehen lerrokada.

“1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren ondare elementuetatik, ukiezinetik eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioetatik dohainik eskuratutako errentak –edo elementu horietatik lortutako errentak, baldin eta aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, transmisioaren aurretik saltzeko mantendutakoak–, entitatearen ustiatze ekonomikoari lotuak egon eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdaketa aurreko hiru urteetan, monetaren balio-galeraren zenbatekoa zuzendu ondoren, baldin aipatu eskualdaketen zenbatekoa esandako ondare elementuetako edozeinetan berriz inbertitzen bada ondare elementua entregatu edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean”».

Zioak: Zuzenketaren funtsa guztiz tekniko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru arauak Kontabilitate Plan Orokor berriko beharrikunetara egokitzea.

24/1996 Foru Legeko 36. artikulua zerga horren araudiko aparteko instituzio berezi bat arautu nahi du: berrinbertsioarengatik salbuespena deitutakoa. Onura fiskal horren bidez, ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren ondare elementuetatik, ukiezinetik eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioetatik dohainik eskuratutako errentak, baldin aipatu eskualdaketen zenbatekoa esandako ondare elementuetako edozeinetan berriz inbertitzen bada ondare elementua entregatu edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean.

Azken batean, ibilgetu horren (materiala, ukie-zina nahiz higiezinetan egindako inbertsioetakoa izan) eskualdaketatik lortu den zenbatekoa aipatu epeetan berrinbertitzen bada, ondarearen gehikuntza, kasua bada, eskualdaketan lortutakoa, salbuetsita egonen da (ez da zerga-oinarrian sartzen).

Kontabilitate Plan Orokor berria indarrean sartzearen ondorioz eta haren erregistro eta balorazio arauetako 7.ari jarraituz, enpresak ibilgetuaren elementuren bat eskualdatu behar badu (hau da, elementu horren kontabilitate-balioa berreskuratu behar bada hura salduz, eta ez haren erabilera jarraituaren ondorioz), ibilgetu hori salmentarako mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatu beharko du, betiere baldintza batzuk betetzen badira (ondasunak eskura egon beharko du berehala saltzeko, salmenta gauzatzeko aukera handiak egonen dira eta abar). Salmentarako mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatze horrek berarekin dakar hura 580. kontuan kokatzea –aktibo korronteari dagokio–, eta, horrenbestez, ibilgetu materialetik, ukiezinetik edo higiezinetan egindako inbertsioetatik kanpo; izan ere, horiek dira 36.1 artikuluan, berrinbertitzeagatik salbuespenerako eskubidea edukitzeko aipatzen diren kontzeptuak. Horrenbestez, ondasun horiei aldi baterako ibilgetuko ondasunak izatearen sailkapena kenduko zaie. Guztiz kontabilitatekoa den beharrik gisa aldi baterako sailkatzea, epe laburrean salduko delako) subjektu pasiboeri berrinbertitzeagatik salbuespenera biltzeko aukera ez kentzeko, 36.1 artikulua testuari zehaztapen bat gehitzen zaio, alegia, elementu horiek ere (hau da, ibilgetu materialari, ukiezinari edo higiezinetan eginiko inbertsioei dagozkienak) onura fiskalaz gozatu ahal izatea, baldin eta eskualdaketaren aurretik salmentarako mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatu badira.

Horrenbestez, zuzenketa honetan sarturiko zehaztapenaren ondorioz, enpresa batek bere ibilgetuko elementuren bat eskualdatu behar badu, aldi baterako 580. kontuan sailkatuko du, salmentarako mantendutako aktibo ez korronte gisa hartuta, eta horregatik, ez du galduko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 36. artikuluko berrinbertitzeagatik salbuespenera biltzeko aukera.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 2. artikuluari bost bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa; haren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1.b) artikuluko a') azpi-letraren laugarren lerrokada kentzen da.

«Bost bis. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1.b) artikuluko a') azpi-letraren laugarren lerrokada kentzen da.

Kendutako laugarren lerrokadak testu hauxe dauka:

“Aurreko lerroaldean agintzen denari begira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko kasuak direla juzgatuko da Urteroko Kontu sendotuak Itxuratze-ko arauen I. kapituluko 1. atalean aipatzen direnak (abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onetsitako arauak)”».

Zioak: Zuzenketa honen oinarriak lotura estua du Kontabilitate Plan Orokor berria jasotako arauekin. Orain kendu nahi dugun lerrokadak argitu nahi du zer jo behar den sozietateen taldezat, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritakoaren bidetik, eta adierazten du, izan ere, urteko kontu bateratuak formulatzeko arauen I. kapituluko 1. atalean jasotako kasuetan izanen dela. Arau horiek abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaz onetsi ziren.

Merkataritza Kodean sarturiko aldaketen eta Kontabilitate Plan Orokor berria onestearen ondorioz, urteko kontu bateratuak formulatzeko arau horietako batzuk indarrrik gabe utzi dira modu tazituan (nahiz eta haiek onetsi zituen errege dekretua formalki indarrrik gabe utzi ez), zeren eta Merkataritza Kodearen aurkakoak eta Kontabilitate Plan Orokoraren beraren aurkakoak baitira. Kontabilitatearen eta Kontuen Auditoretzaren Institutuak bere burua aurkitu du irizpide batzuk eman beharrean argitze aldera urteko kontu bateratuak formulatzeko aipatu arauetatik zein utzi diren tazituki indarrrik gabe ez zeinek jarraitzen duten indarrean.

Egoera horren aurretan, egokitzen jotzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1.b) artikuluko a') azpi-letraren laugarren lerrokada kentzea, zeren eta haren ustezko argitzea segurtasun juridiko eza eragiten baitu, aipatzen den arauaren zati bat tazi-

tuki indarrrik gabe utzi delako. Bestalde, jotzen da 50.1.b) artikuluko a') azpi-letrako aurreko lerrokadan, hau da, hirugarren lerrokadan, aipatzen diren bi igorpenak ez direla behar bezain esplizituak, zeren eta 42. artikulua ez baitu argitasun gehiagorik behar: "sozietateen talde bat egonen da sozietate batek beste baten edo gehiagoren kontrola duenean edo izan dezakeenean, zuzenean nahiz zeharka."

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 2. artikuluari zortzi bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa; haren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.3 artikulua aldatzen da. Hona testua:

__«Zortzi bis. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.3 artikulua aldatzen da.

“3. Ondoko hauek 100eko 17ko zerga ordainduko dute:

a) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboak, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienean izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan sozietateak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen 100eko 25 bederen Erreserbako Funtz Berezi- ra sartzen badute, salbu sozietatearen jarduera berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementu- etatik ateratzen diren errentei dagokienean, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta oinarri likidagarria positiboa, 100eko 17ko zerga tasa aplikatuko da”».

Zioak: Kontuan izanda subjektu pasibo mota batzuei karga-tasa jaitsi zaiela, egokia dirudi karga-tasa ehuneko batean jaitea eduki sozial errotua duten entitateei; alegia, fiskalki babestutako kooperatibei (kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik) eta gutxienez ere beren etekin 100eko 25 Erreserbako Funtz Berezi- rako erabiltzen dituzten lan sozietateei.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 2. artikuluari hemeretzi bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa; haren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari 37. xedapen iragankorra gehitzen zaio. Hona testua:

«Hemeretzi. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari 37. xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorra. Karga-tasa 100eko 27ra, 20ra edo 17ra jaitea, baldin eta enpleguari eusten bazaio edo enplegua sortzen bada 2010ean eta 2011n hasten diren zergaldietan.

1. 50.1.b) artikuluko lehen lerrokadan ezarritako 100eko 27ko karga-tasa, 50.1.b) artikuluko azken lerrokadan ezarritako 100eko 20ko karga-tasa eta 50.3 artikuluan ezarritako 100eko 17ko karga-tasa 2010ean eta 2011n hasten diren zergaldietan aplikatuko dira, baldin eta zergaldi horiek hasi eta hurrengo hamabi hiletan entitatearen gutzitako plantillaren batez bestekoa unitatea baino txikiagoa ez denean eta, gainera, hurrenez hurren zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako gutzitako plantillaren batez bestekoa baino txikiagoa ez denean.

Idatz-zati honetan aipatzen diren zergaldietako batek hamabi hilabete baino gutxiago irauten duenean, plantillaren batez besteko kontaketa urtebeterra eramanen da.

Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu den kasuetan, joko da zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako gutzitako plantillaren batez bestekoa zero dela.

Aipatu karga-tasak aplikatzeko baldintzak modu independentean kontatuko dira hamabi hileko aldi horietako bakoitzean eta zergaldi horietako bakoitzean.

Idatz-zati honetan ezarritako baldintzak bete ezean, egoera hurrengo idatz-zatian ezarritako moduan erregularizatuko da.

2. Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu denean eta lehenengo zergaldiaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako gutzitako plantillaren batez bestekoa zero baino gehiago eta bat baino gutxiago denean, xedapen honetan aipatzen diren tasak entitatea eratu den aldian aplikatuko dira,

baina baldintza batekin: zergaldi hori bukatu ondorengo hamabi hilabetetan guztizko plantillaren batez bestekoa ezin izanen da bat baino txikiagoa izan. Baldintza hori betetzen ez bada, subjektu pasiboak, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuotarekin batera, behar ez bezala aplikatutako karga-tasaren aldeari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, berandutza-interesez gainera».

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuak sozietateen gaineko zergaren tasa batzuen jaistea ezartzen du. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin.

Izan ere, 100eko 27ko karga-tasa aplikatuko dute enpresa txikitzat jotako subjektu pasiboek, 100eko 20koa milioi euroko edo gutxiagoko negozio zenbatekoa duten subjektu pasiboek, edo 100eko 17koa bereziki babestutako kooperatibek eta lan sozietateek.

Hori ezertan kendu gabe eta kontuan izanda krisiak indar berezia izan duela enplegurik ez sortzearen arloan, karga-tasa horien aplikazioa aldi baterako baldintzatu nahi da; izan ere, karga-tasa horiek aplikatu ahal izateko, 2010ean eta 2011n hasten diren zergaldietan, enplegua sortu beharko da edo enpleguari eutsi beharko zaio.

Azken batean, honako baldintzak ezartzen dira:

1._ Zergaldi horietako bakoitza hasi ondorengo hamabi hilabeteetan, entitatearen guztizko plantillaren batez bestekoa ez da bat baino txikiagoa izanen. 2._ Gainera, zergaldi horietako bakoitza hasi ondorengo hamabi hilabeteetan entitatearen guztizko plantillaren batez bestekoa ez da izanen, hurrenez hurren, zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako guztizko plantillaren batez bestekoa baino txikiagoa.

Bestalde, zehaztapen edo badaezpadako neurri batzuk ezartzen dira:

– Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu den kasuetan, joko da zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako guztizko plantillaren batez bestekoa zero dela.

– Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu denean eta lehenengo zergaldiaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako guztizko plantillaren batez bestekoa zero baino gehiago eta bat baino gutxiago denean, xedapen iragankorrean aipatzen diren tasa murriztuak entitatea eratu den aldiari aplikatuko dira, baina baldintza batekin: zergaldi hori bukatu ondorengo hamabi hilabetetan guztizko plantillaren batez bestekoa ezin izanen da bat baino txikiagoa izan.

– Karga-tasa murriztuak aplikatzeko baldintzak modu independentean kontatuko dira hamabi hileko aldi horietako bakoitzean eta zergaldi horietako bakoitzean.

– Tasa murriztuak aplikatzeko baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboak, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuotarekin batera, behar ez bezala aplikatutako karga-tasaren aldeari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, berandutza-interesez gainera.

24. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«10. artikulua. Ondarearen gaineko zerga.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, indarririk gabe geldituko da abenduaren 30eko 28/2008 Foru Legeko 2. bis artikulua.

Zioak: 28/2008 Foru Legeak indarririk gabe utzi zuen 2. artikuluko ondarearen gaineko zerga berrezarri nahi da, zeren eta zuzeneko zergape-tzea, bere formulazio desberdinekin ere, txikiagoa baita Nafarroan Europako estatu aurreratuenetan baino. Horietan, ordea, presio fiskala Nafarroakoa baino handiagoa izanik ere, hemen baino arinago ateratzen ari dira krisialdi ekonomikotik.

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuari artikulua bat, 10.a, gehitzeko zuzenketa. Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari artikulua bat, 10.a, gehituko zaio, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua aldatzeko. Hona testua:

«10. artikulua. Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua honela idatzita geldituko da:

“2. 1. idatz-zatian agertzen diren datuetan oinarritua, udalek, martxoaren 31 baino lehen, behar diren likidazioak egin eta zergaren likidaziorako

agiriak igorriko dituzte urtero, zerga tasa aplikatu zaion ondasunaren katastroko balioa espresuki adieraziz. 138. artikuluan ezarritakoaren arabera zerga oinarrian beherapena aplikatu behar baldin bada, inguruabar hori aipatuko da, bai eta beherapen horiek noiz arte aplikatuko diren ere. Era berean, adieraziko dira likidazioetako gainerako funtsezko elementuak eta tributu zorra ordaintzeko tokia, epea eta modua, bai eta aurkatzeko bideak ere.

Foru lege honen 1. tituluko IV. kapituluko 4. eta 5. ataletan ezarritakoaren eraginetarako, eta kontuan izanda zergaren kudeaketari buruz artikulua honetan jasotako arauetara berariazkoa, modu horretan igorritako likidazioa arauz jakinarazitako likidaziotzat hartuko da, eta ezin izanen dira aplikatu likidazioaren jakinarazpenari buruz aipatu ataletan ageri diren xedapenak. Likidazioaren ondoriozko zorra urteko edo sei hilabeteko ordainagiriaren datatik hasita hurrengo hilabetean ordaindu beharko da.”

Zioak: Zuzenketa honekin ez da benetan aldatu nahi Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua oinarritzeko edukia; izan ere, helburu du haren interpretazioa argitzea eta hura interpretatzeko xehetasun batzuk ematea. Helburu du, horrenbestez, modu argiagoan adieraztea arauaren mens legislatoris delakoa. Aipatu 143. artikulua lurralde-kontribuzioaren tributu-kudeaketa berezi eta zehatza jasotzen du. Kudeaketa hori zerga horren erregistroko edo katastroko kudeaketarekin koordinatu beharko da. Ezin da aldatu ez erregistroaren edo katastroaren kudeaketa, ez eta zergaren tributu-kudeaketa ere.

2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua egungo testua eta zuzenketarekin ezarri nahi den testua alderatuz gero, hiru aldaketa atzemanen dira:

1. Lehenengo lerrokadan likidaziorako dokumentuaren edukia argitzen da: adieraziko ditu likidazioetako funtsezko elementuak (katastroko balioaz gainera), bai eta tributu-zorra ordaindu behar den tokia, epea eta modua; halaber, likidazioa aurkatzeko bideak ere adieraziko dira.

2. Bigarren lerrokadan, zehazten da arauaren zehaztapen edo berezitasunek (lurralde-kontribuzioaren tributu-kudeaketa berezi eta bereizgarri dagozkionak) lotura dutela 2/1995 Foru Legeko 1. tituluko IV. kapituluko 4. atalaren eta 5. atalaren edukiarekin.

3. Amaitzeko, berriz esaten da, egungo testuan ere argi dagoen arren, igorritako likidazioa ez dela jakinaraziko, zeren eta arauz jakinarazitako likidaziotzat joko baita eta, horrenbestez, ez baitzaizkio

aplikatuko likidazioa jakinarazteari buruzko aipatutako 4. eta 5. ataletan xedatutakoak.

Azken batean, arauari buruzko argibideek (ezen ez berariazko aldaketek) bilatzen dute zergaren kudeaketa berezia azpimarratzea, eta, zehazkiago, likidazioak banakako jakinarazpena behar ez izatea azpimarratzen dute.

Horren guztiaren arrazoia da bai subjektu pasiboak jasotzen duen informazioak, bai aurkatzeko dauzkan aukerak oso zabalak izaten jarraitzen dutela. 2/1995 Foru Legeko 143.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz, subjektu pasiboek ahalmena izanen dute (behin ordainagiria edo likidaziorako dokumentua jasota) aurkatzeko bai zergaren likidaziorari buruzko alderdiak, bai katastroko balioari dagozkion alderdiak. Zergaren likidazioa (zergaren udal kudeaketaren arlokoa da), berez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen arabera aurkatu ahalko da. Katastroko balioa ere (erregistroko edo katastroko kudeaketari dagokio, eta, horrenbestez, Nafarroako Zerga Ogasunaren eskumena da), 2/1995 Foru Legeko 143.4 artikulua honetan ezarritako berariazko prozeduraz aurkatu ahalko da, likidaziorako dokumentua jasotzen denean.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuari artikulua bat, 11.a, gehitzeko zuzenketa. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzei buruzko Foru Lege proiektuari artikulua bat, 11.a, gehituko zaio, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34.4 artikulua aldatzeko. Hona testua:

«11. artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34.4 artikulua honela geldituko da:

“4. Aurreko idatz-zatian aipatutako balorazio ponentziak, berriz, honela sailkatuko dira:

a) Osoak, ponentziaren baitan udalerrri jakin bateko edo, udalez gaindiko balorazio ponentzien kasuan, eragin eremuko ondasun higiezin guztiak hartzen badira. b) Partzialak, bere baitan udalerrri bateko edo gehiagoko eremu, poligono edo lurzati jakin bateko edo batzuetako ondasun higiezin

homogeneo jakin batzuk hartzen baditu edo, kasua bada, lurzati berezi bat eta bertan kokatutako ondasun higiezinak.

Balorazio partzialeko ponentzien determinazioak eranskin gisa gehituko zaizkio balorazio osoko ponentziari, behin onetsita.

Balorazio partzialeko ponentzietako bakoitzeko ondasunei zuzenean aplikatzekoak izanen dira haietan jasotako determinazioak. Eta ordezeko aplikazioak izanen dira, balorazio partzialeko ponentziekin kontraesanean ez dagoenetan, balorazio osoko ponentzietan jasotako determinazioak».

Zioak:

Arau esparruari argitasun eta koherentzia handiagoa ematea helburu, guztiz egokia da gehiketa hori egitea Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34.4 artikuluan, zehazte aldera nola jaso behar diren formalki balorazio partzialeko ponentzien determinazioak balorazio osoko ponentzietan, bai eta zein izenen den ponentzia partzialen aplikazio eremu zehatza ere, hala udal ponentziak nola udalez gaindikoak. Lehengo idazkera lausoa ordezte da helburua; izan ere, udal bateko ponentzia partziala behartzen zuen udalerrri osoari aplikatzekoak ziren determinazio osoak ezartzera, eta horrek berekin zekarren udal ponentzia indardunaren balorazio tekniko berriz egin beharra edo, besterik gabe, ponentzia horretara jo beharra. Horren orde, idazkera argiago bat bilatu da; hartara, udalaren ponentzia indardunean eranskin gisa jasoko dira balorazio partzialeko ponentziaren determinazioak, foru lege hau garatzen duen erregelamenduko 38.8 artikulua ezartzen duen legez.

Horra, hortaz, proposatzen den aldaketaren zioak, idazkera hobetzeaz edo arau-koherentziaz harago:

1. Ekiditea balorazio osoko udal ponentzia aldatzea balorazio partzialeko ponentzia bat egiten den bakoitzean (definizioz, esparru oso mugarikoa baita ukitutako ondasunei dagokienez).

2. Saihestea balorazio partzialeko udalez gaindiko ponentzia bat onesten den bakoitzean (esaterako autobide bat baloratzeko) aldatu behar izatea ukitutako udal guztietako balorazio ponentzia guztiak.

XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKEETA

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan gutxieneko pertsonal eta familiarrek eta pentsio-planetan eginko ekarpenek duten tratamendua aldatuko duena.

Aldaketa horren bidez, gutxieneko pertsonal eta familiarren eta pentsio-planetan eginko ekarpenen tratamendua egingen da zergako kuota osoaren kenkari gisa, eta ez zerga oinarriaren murriztapen gisa.”

Zioak: Gehikortasun-printzipioaren aurkakoa da indarreko sistema; zenbat eta handiagoa izan zergadunaren errenta, handiagoa da gutxieneko pertsonal eta familiarretatik eratorritako aurrezpen fiskala.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen ondarearen gaineko zergari buruzko foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari.”

Zioak: Pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga berreskuratzea. Gure ustez ez dago inolaz ere justifikaturik zerga hori kentzea.

29. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Azken xedapenetan lehenengoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, zerga bidezko dirubilketa hainbeste jaisten ari den une batean, sozietateen gaineko zergako kenkaria ez litzateke % 20tik % 30era igo beharko kirola babesteko kontratuetatik heldu diren publizitate gastuei dagokienez. Aurrekontuen proiektuak aurreikusten du % 30 baino gehiago jaitsiko dela 2010ean sozietateen gaineko zergatik heldu den dirubilketa.

30. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretu bide onetsi zen sozietateen gaineko zergaren xedapenen Testu Bategina, aldatzen duen Foru Lege proiektuko azken xedapenetan lehena aldatzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan lehenengoa. Ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen sozietateen gaineko zergaren xedapenen Testu Bategina aldatzea.

2010. eta 2011. urteetan hasitako zergaldien ondorioekin, sozietateen gaineko zergaren xedapenen Testu Bateginaren 22.B.Hirugarrena artikulua, abenduaren 29ko 19/2005 Foru Legeak ezarritako idazketaren arabera, testu hau izanen du:

“Hirugarrena. Foru erkidegoko Administrazioiko departamentu eskudunek gizarte-interesekotzat deklaraturiko kirol, kultura eta gizarte-laguntzako jardueren babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik ordaindu diren kopuruen 100eko 30 kendu ahalko da letra honetako lehen atalak aipatzen duen kuota likidotik. Horretarako, kasuko espedienteak tramitatuko dira departamentu haietan.”

Zuzenketaren helburua argia eta zehatza da: sozietateen gaineko zergaren kuota likidoaren ehuneko 30eko kenkaria gizarte-laguntzako jarduerari ere aplikatzea; izan ere, egungo idazkerari jarraikiz, foru erkidegoko Administrazioiko departamentu eskudunek gizarte-interesekotzat deklaraturiko kirol eta kultura jardueren babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik ordaindu diren kopuruei soilik aplikatzen zaie.

Alegia, departamentu eskudunak gizarte-interesekotzat deklaratu ahalko ditu gizarte-laguntzako jarduera jakin batzuk, eta horiei sozietateen gaineko zergaren kuota likidoaren ehuneko 30eko kenkaria aplikatuko zaie, baldin eta babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik heldu badira.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko azaroaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako udaletan bizikletentzako aparkalekuak jartzeko.

Adierazpen instituzionala, Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak berresten du genero indarkeria gizartetik ezabatze aldera lan egiteko konpromisoa, eta berriro ere arbuizatu du emakumeen aurkako indarkeria oro.

2. Nafarroako Parlamentuak, azaroaren 25a dela eta, indarkeriaren biktima diren emakumeak gogoratu nahi ditu bere jardun politikoan, eta administrazio guztiak premiatzen ditu elkarlanean jardun dezaten genero indarkeria ezabatzeko neurri guztiak aplikatzerakoan eta eskura dituzten

neurri guztiak har ditzaten Nafarroako gizartea gaitz horren aurka sentsibilizatzen jarraitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak administrazio guztiak, Foru Administrazioa bereziki, premiatzen ditu beharrezkoak diren neurriak ezar ditzaten tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeei eta haien kargura dituzten hurrei laguntzeko sareak indartze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza-administrazioa premiatzen du herritar gazteenak genero indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko jarduerak susta ditzan.

5. Nafarroako Parlamentua ziur dago gizarte osoak bat egitea tresna indartsua dela genero indarkeriaren gaitza ezabatzeko. Hori dela eta, jarraituko du aldiari biktima izan diren pertsonak omentzen, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu, gazteenak, bereziki, genero indarkeriako ekintza guztiak gaitzetsi eta arbuia ditzaten, hori baita biktimei laguntzeko frogarik onena.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ORO

EZABATZEAREN ALDEKO I. MARTXAREKIN. Eki-
men hori Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federa-
zioak eta Nafarroako berdintasunerako Institutuak
proposatutakoa da, azaroaren 25ean Generoko
indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatze-
ko ekitaldien barruan.”

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du autodeterminazio-erreferenduma dela Mendebaldeko Saharako gatazkaren irtenbidea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko azaroaren 23an egindako bileran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak berresten du autodeterminazio-erreferenduma dela Mendebaldeko Saharako gatazkaren irtenbidea, eta dei egiten dio Nazio Batuen Erakundeari beharrezkoak diren neurriak abian jar ditzan Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren eta Batzar Nagusiak Saharako herriaren autodeterminazio eskubideari buruz hartuako erabakiak betetze aldera.

2.- Gogorarazten du Mendebaldeko Sahara ez dela inoiz lurralde marokarra izan, eta dei egiten dio nazioarteko komunitateari exiji dezan Saharako herritar zibilak jasaten duten errepresioaren amaiera.

3.- Babesa agertzen dio Saharako erresistentziari, eta, bereziki, Aminatu Haidar giza eskubideen aldeko aktibistari, zeina gose greba egiten ari baita Lanzaroten. Horrekin lotuta, Marokoko Gobernuari eskatzen dio Aminatu Haidarri utz diezaion Aaiunera itzultzen, bere familiarekin elkartzeko, eta, halaber, gogorarazten dio hori onartu ezean Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Konbentzioa urratuko duela.

4.- Eskatzen du preso politiko saharar guztiak eta Marokoko espetxeetan preso dauden Saharako herriarren giza eskubideen defendatzaileak aske utz ditzan, eta argi dezan non dauden desagerturiko 550etik gora pertsonak.”

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gizarte Bazterketaren aurkako II. Planari buruzkoa.*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Bazterketaren aurkako II. Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarren Osoko Bilkuran:

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako II. Planari buruzko galdera.

Zergatik ez da aurkeztu Gizarte Bazterkeriaren Aurkako II. Plana?

Iruñean, 2009ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Errepideei buruzko II. Planeko 147. eta 148. jarduketak ez betetzeko arrazoiei buruzkoa.*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Errepideei buruzko II. Planeko 147. eta 148. jarduketak ez betetzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez dira bete Errepideei buruzko II. Planeko 147. eta 148. jarduketak, ekialdeko ingurabidean, Uharteren eta Ezkabako tunelaren artean, zenbait jarduera egitea aurreikusten zutenak?

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko zer egin den gazteen ugalketa- eta sexu-osasuna sustatzearen arloan.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer egin den gazteen ugalketa- eta sexu-osasuna sustatzearen arloan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan, gazteen ugalketa- eta sexu-osasuna sustatzearen arloko erabaki ugari hartu dira.

Legegintzaldi honetan, zer egin da Nafarroan arlo horretan?

Iruñean, 2009ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Calahorrako Ospitalean Nafarroako gaixoen kontsultak bertan behera uzteari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Calahorrako Ospitalean Nafarroako gaixoen kontsultak bertan behera uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 19an, ondoko albistea agertu zen foru erkidegoko egunkari batean: "Calahorrako Ospitalean Nafarroako gaixoen kontsultak bertan behera utzi dira." Informazio horren aurrean hau jakin nahiko nuke:

Zergatik eten da zerbitzu hori?

Zergatik hasi zen 2001ean zenbait gaixo ospitale horretara bidaltzen?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia ez betetzeari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Batzordean erantzun dezan.

Iaz Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen zen protokolo bat ezar zezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko. Protokolo horrek koordinazioa eta banakako jarraipena sustatuko zituen, eta aholkulari adituaren figura ezarriko zuen, erreferentziako teknikari gisa.

Egunotan, gaixotasun honen aurkako nazioarteko egunarekin batera, gaixotasun honen ondoriozko kaltetuen elkarreak salatu du PSN-PSOEk aurkeztutako mozio hartan ezarritako konpromisoak ez direla bete; izan ere, beraien ustez, ez dago baliabide nahikorik eta arantza bifidoa eta hidroze-falia ez dira gaixotasun kronikotzat hartzen.

Horiek horrela, hona galderak:

Osasun Departamentuak zergatik ez du bete Parlamentuan onetsitako erabakia?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko duen ETB1 eta ETB2 ikusi nahi duten nafarrek aukera hori izan dezaten itzalketa analogikoa gertatu ondotik.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko duen ETB1 eta ETB2 ikusi nahi duten nafarrek aukera hori izan dezaten itzalketa analogikoa gertatu ondotik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera aurkeztu du Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari jaunak ahoz erantzun dezan:

Zuzentzen duzun departamentuak hartu behar al du neurririk ETB-1 eta ETB-2 telebista kateak ikustea aukeratzen duten nafarrek abenduaren 10etik aurrera ere, itzalketa analogikoa gertatu ondotik, aukera hori izaten jarrai dezaten?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Calahorrako Ospitaletik Lizarrako García Orcoyen Ospitalera dermatologiako, oftalmologiako eta otorrinolaringologiako gaixoak bidali ondotik hartutako neurriei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Calahorrako Ospitaletik Lizarrako García Orcoyen Ospitalera dermatologiako, oftalmologiako eta otorrinolaringologiako gaixoak bidali ondotik hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola hartu ditu bere gain Osasun Departamentuak Calahorrako Ospitalera bideratzen ziren 5.000 gaixoak? Calahorrako Ospitalera bideratzen ziren kontsultak dermatologiakoak, oftalmologiakoak eta otorrinolaringologiakoak dira; hain zuzen, Lizarrako García Orcoyen Ospitalean itxaron zerrenda luzeenak dituztenak. Hori kontuan hartuta, zer neurri hartu ditu departamentuak?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzarekin batera, defendatzen du Nafarroaren eta euskal Y-a deiturikoaren arteko tren bidezko lotura Zuastitik (Nafarroa) Ezkio-Itsasora (Gipuzkoa) egitea, gaur egun Sakana zeharkatzen duen tren trazadura aprobetxatu gabe eta Aralarko parkeari oraindik zehaztu gabeko kaltea eraginez.

Baliteke trazadura hori ingurua gutxien errespetatzen duen eta kostu handiena duen konponbidea izatea; hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

- Gobernuak kontuan hartu al du gaur egun Sakana zeharkatzen duen trazadura –ez trenbidea, jakina denez– osorik ez bada hein batean aprobetxatzeko aukera?

- Aukera hori baztertzeko arrazoiak azaltzea nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premitzen zen egin beharreko izapideak egin zitzan Espainiako Gobernuarekin, Altsasuko tren geltoki-

an egunero gutxienez Bartzelonako eta Madrileko tren bana gera zedin, joan-etorrietan.

Denbora-tarte bat iragan da mozio hura onetsi zenetik, hau jakin nahiko nuke:

- Zein da Nafarroako Parlamentuak eginiko eskariaren egoera, hau da, zertan dira Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin egin beharreko izapideak, Altsasuko tren geltokian egunero gutxienez Bartzelonako eta Madrileko tren bana gera dadin, joan-etorrietan?

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Altsasuko Mufabrik enpresaren datuak prentsan azaldu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejero, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión.

2009ko martxoaren 9ko bilkuran, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen 600.000 euroko abala, enplegua sortzeko inbertsiorako laguntzarako aurreikusitako gehienezko kopurua, emateko Iruñerriko bioenergiako enpresa bati. Foru parlamentari honek orduan hurrengo galdera egin

zuen: zein da 600.000 euroko abala jaso duen Iruñerriko enpresa?

Nafarroako Gobernuak hurrengo erantzun zuen: eskatutako informazioa babestuta dago, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean ezarritakoari jarraituz. Horrenbestez, ez da bidezkoa informazio publikoa ematea espediente administratibo partikular bati buruz.

Halere, Nafarroako Gobernuak lehenengo abala eman zuenean, honek berak egin zuen publiko zein enpresari eman zitzaion abal hori, Altsasuko Mufabrik S.L. enpresari hain zuzen ere, eta 2009ko otsailaren 17ko Nafarroako egunkarietan jaso zen albistea.

Hau horrela, parlamentari honek hurrengo jakin nahi du.

1. Legea kontuan hartuz gero, ez al zuen babestuta egon behar otsailaren 17an prentsan azaldutako informazioak?

2. Informazio hau emateko orduan kontuan hartu al zen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea?

3. Zergatik eman dira Altsasuko Mufabrik S.L. enpresaren datuak prentsan eta ez abala jaso duten gainontzeko enpresenak, datu hauek publikoak badira?

4. Datuak publikoak badira egunkarietan etorri bezala, zergatik ukatu zaio Parlamentari honi informazio hori Legearen aitzakia hartuta?

5. Ez al zaio iruditzen kontseilari jaunari parlamentu-talde honek eduki beharreko informazioa dela abalak nori eta zein kantitatean eman diren, kontuan hartuta abalak diru publikoa direla?

6. Abala eman zaien enpresa guztien izena eta diru kantitatearen desglosearen kopia.

Iruñean, 2009ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren eta Batzordeen Bilkura Egunkariaren grabazio, transkripzio, argitalpen, publizitate eta banaketari buruzko erabakia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren eta Batzordeen Bilkura Egunkariaren grabazio, transkripzio, argitalpen, publizitate eta banaketari buruz. Aipatu txostena ikusirik, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Legebiltzarreko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuari, Erregelamenduko 76. eta 112. artikuluekin bat, Osoko Bilkuren eta batzorde arrunten bilkuren grabazioa, transkripzioa, argitalpena, publizitatea eta banaketa egin dezan, honako irizpide hauei jarraituz.

a) Osoko Bilkuren eta batzorde arrunten bilkurak, kasu guztietan, grabatuko dira eta soinuaren zein irudiaren erregistroak artxibatuko dira.

b) Osoko Bilkuren eta Foru Araubide Batzordearen bilkurak transkribatu eta, editatuta, argitaratu egingo dira, hala paperean Legebiltzarreko Bilkura Egunkarian, nola Nafarroako Parlamentuko webgunean.

c) Legebiltzarreko zerbitzuek transkribatu, editatu eta Nafarroako Parlamentuko webgunean argitaratuko dituzte Gobernuaren kontrolerako batzorde arruntak, baldin eta batzordeok, gai zerrendan, Gobernu kideen informazio agerraldia, galderak edo mozioak badituzte.

2. Erabaki honek baliogabe uzten ditu Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1988ko irailaren 13an eta 1990eko apirilaren 23an gai honi buruz harturiko erabakiak.

3. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Jesus Pajares Azpíroz jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Jesus Pajares Azpíroz jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamentari izaera lortu zuen apirilaren 2ko 4/2007 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hau-

teskundeetan (2007-4-3ko 41 zk. NAO), Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 3. idatzatian xedatuarekin bat etorritik –deialdia Comptos Ganberako lehendakariaren 2009ko abuztuaren 20ko ebazpenaz onetsi zen– onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta azaroaren 10eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik erreklamazio bat ere aurkeztu gabe, bidezkoa da onestea deialdian onarturik eta bazterturik gelditu diren izangaien behin betiko zerrenda.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) *Onartuak:*

Aliaga Retabé, Eduardo
Arana Rey, Cristina
Azcona Díez de Ulzurrun, M^a Carmen
Bandrés Ardanaz, Sancho
Bretos Noain, Enrique
Buzunariz Berastegui, Edurne
Gainza Ordoqui, José M^a
García Cascante, M^a Esperanza

García Leranoz, Elisa
González de Castejón Hermoso, M^a Jesús
Iglesias López, María
Irigoyen Olaiz, Lourdes
Marticorena Chapa, Xabier Iñigo
Martínez Celaya, Olga
Martinikorena Matxain, Miren Edurne
Moreno Orduña, Karen
Moriones Rey, Silvia
Naya López, Enrique
Ondarra Erdocia, Rosario
Oyarzabal Zubieta, M^a Dolores
Pérez Remondegui, José Javier
Rodríguez Jiménez, Ainara
Ruíz de Gordo Ruíz de Alegria, Edurne
Sabalza Navallas, Marta
Samanes Yagüe, Cristina
Unzué Guruchaga, Adriana
Zalguizuri Soto, Jesús M^a

b) *Baztertutak:*

Inor ez.

Hirugarrena. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

Iruñean, 2009ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Jesús Esparza Iriarte foru parlamentari jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Jesús Esparza Iriarte foru parlamentari jaunak azaroaren 16an idazki bat aurkeztu du Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartu dela jakinaraziz. Aipatu idazkia ikusita, hona ERABAKIA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda